Ane Zabala, Bilbao Hiria Irratiko esataria eta koordinatzailea

# "Irratia bizitzako bide laguna da"

Txani Rodríguez

HOGEI urte betetzear dago Bilbo Hiria. 1997.urtetik hona asko aldatu dira hedabideak. "Teknologiak izugarri erraztu du hedapen lana, lehenago eta arinago jaso dezakegu informazioa, hemengo eta milaka kilometrora gertatutakoa. Horrek eragina izan du gure irratian baliabide gehiago ditugu hartzailearengana heltzeko", azaltzen du Ane Zabalak. "Baina, funtsean, irratiaren helburua berdina da; komunikazioa", dio irrati hazi eta hezi den kazetari honek.

**–Hogei urte dagoeneko. Nola eta zertarako sortu zen Bilbo Hiria?**

–1997. urteko udaberrian hasi zen lanean irratia. Zenbat Gara Bilboko euskaltzaleen elkarteak jarri zuen martxan. Aurretik, 1995. urtean Kafe Antzokia abiatu zen, hiriko euskaldunentzat topaleku izateko asmoarekin. Leku fisikoaz gain euskara zabaltzeko hedabideak duten garrantziaz ohartuta irratia jarri zen martxan. Bilbo Hiria irratiak Bilboaldeko euskaldunak trinkotzeko tresna izan nahi du, kopuru absolutuetan euskaldun eta ia euskaldun gehien duen hiria izanagatik ere, gure hirian bizi diren euskaldunak zeharo sakabanatuak daude, hori dela eta, elkarren ezagutzak egiten, elkarren artean trinkotzen eta, azken finean, komunitatea osatzen lagunduko dieten tresnak behar ditugu. Irratiak lan handia egin dezake egінkizun horri begira eta horixe da, hain zuzen ere, Bilbo Hiriaren funtsezko helburuetariko bat.

**–Urteurrena ospatzeko, zenbait ekimen jarri duzue martxan. *Bilbo Hiria Auzoz Auzo*, besteak beste. Irratsaio berezi dira Bilboko auzoak hobeto ezagutzeko. Aberasgarria izaten ari da esperientzia?**

–Oso esperientzia interesgarria izaten ari da, dagoeneko bi saioa egin ditugu Otxarkoagan eta Abusun. *Bilbo Hiria Auzoz Auzo* egitasmoarekin: larunbatetan, saio bereziak egiten ditugu zuzenean, auzoetatik bakoitzari erretratua egiteko. Auzoei argazkia egin nahi diegu, bakoitzaren nortasuna erretratatzeko. Erretratu hori auzoetan lan egiten duten talde eta elkarteen bidez egiten ari gara. Egunerokoan heltzen ez garen toki eta pertsona edo elkarte horiek ezagutzeko aukera izaten ari gara. Auzoen historia eta bilakaera, horrek Bilbo nola garatu den ezagutzeko aukera ematen digu. Askotan erdigunera begira egoten gara eta ertzen ere bada zer kontatu.

**–Disko bat ekoizten ari zarete. Zer aurreratu dezakezu proiektu honi buruz?**

–Irratian musika eta hitza ditugu bide lagun. Bilbo Hiria irratia, euskal kulturaren agertoki handia dugu, plaza eta oihartzuna ematen baitiegu euskal kulturatik datozen adierazpide eta adierazpen guztiei, musika, literatura, zinea, antzerkia zein beste zernahi izan.



"Sare sozialak termometro ona izaten dira entzuleekin harreman zuzenak izateko"

hogei urte hauetan eginiko lagunekin disko berezia prestatzen gabiltza, euskal sortzaile ezberdinekin elkarlanean.

**–Hamaika urterekin hasi zinen zu irratian kolaborazioak egiten, hain zuzen ere, Radio Euskadin eta Galder Pérez aktore eta kazetariarekin batera. Komunikabiderik bereziena dela zuretzat irratia esan genezake?**

–Irratia bizitzako bide laguna da. Irratian hazi eta hezi naiz. Irratia barrutik ezagutu dut baina baita entzule bezala. Izugarri gozatzen dut irratia entzuten. Gaur egun gainera *podcast*-en bitartez munduko edozein txokotako irratia entzuteko aukera dugu.

**–Bilbo Hiria Irratian koordinatzaile zaitugu bai eta *Piperpolis* saioaren zuzendaria eta aurkezlea. *Piperpolis* horretan zeri begiratzen diozue?**

–Piperpolis saioa 'kultur artefaktua' da. Euskal kulturari tartea egiten diogu. Euskal kulturaren plaza izateaz gain sormena ere lantzen dugu, irrati fikzioa eginez. Badugu *Utopiaren postontzia* deituriko atala. Postontzian denetariko istorioak ditugu, ipuin, antzerki, hausnarketa…

**–Zeintzuk dira programazioaren ardatzak?**

–Astelehenetik ostiralera, goizero bi ordu ekoizten ditugu bederatzietatik hamaiketara. Aurreneko ordua *Hizpidea* saioak hartzen du eta Gasteizko Hala Bedi irratiarekin batera egiten dugu, aktualitatearen errepasoa eginez. Bigarren ordua *Ibaizabal* magazina da, zuzenean Bilbori begira egina; hogei urte ditu programak, hau da, irratia martxan jarri zenetik antenan dago. Arratsaldeko programazioari *Tamaina txikian* izeneko tartearekin ekiten diogu, saio txikiak, pilulak, eskaintzen ditugu, gai anitz hizpide hartuta: ekologia, poesia, Bilboko kaleen historia… Lauretatik seietara *Zebrabidea*-ren ordua da, Arrosa sareko irratiek elkarlanean egiten dugun programa, eta zortzietatik hamarretara berriro Bilbo Hiria irratiko saio propioak daude entzungai, kolaboratzaile sare zabal baten lanari esker. Bertsolaritza saioa *Potto*, *Eremuz kanpo* zinemaz edo zinema aitzakia duen saioa, teknologia berrien ingurukoa *Sarean zehar*, literatura *podcast*-ak *Xerezaderen artxiboa* saioaren eskutik. Musika saioa ezberdinak, kolaboratzaileen artean Txuma Murugarren, Rafa Rueda, Isidro Elgezabal edo Pedro Elias Igartua ditugu.

> "Bilbo Hiria irratiak Bilboaldeko euskaldunak trinkotzeko tresna izan nahi du"

**–Katalanezko eta galegozko saioak ere egiten dituzue.**

–Beste herri eta kulturen berri ematen dugu irratian, eta horren adibide argia dira *De mica en mica s'omple la pica* eta *Ireki gaiola* saioak dira. Lehena Casal Bilbo elkarteko lagunek egiten dute, katalanez, euren komunitatearen inguruko gaiak lantzen dituzte, eta Kataluniako gaurkotasuna hemen zabaltzeko helburua dauka. *Ireki Gaiola* Galizaleak elkarteko kideek egiten dute, asteazkenero, galegoz. Saioaren asmoa da Galiziako irudiaren inguruan dauden topikoak haustea. Beste errealitate batzuk erakutsi nahi dituzte, eta xede horrekin sortu zen bai elkartea bai irratsaioa ere.

**–Zeintzuk izan dira Bilbo Hiria irratiak jaso dituen emaitzak?**

–Saila izaten da jakitea hartzailearengana heltzen zaren ala ez, baina sare sozialak termometro ona izaten dira entzuleekin harreman zuzenak izateko, eta horiek guztiak baliatzen ditugu harremanak sendotzeko eta egiten duguna zabaltzeko. Bi norabideko harremana da, guk gure edukiak zabaldu eta Bilboko euskal komunitateak gurekin harremanak izateko bide ona da.

**–Kazetaritza da zure aktibitaterik nagusiena, baina antzerkia duzu pasioa. Zein proiektutan zaude oraintxe?**

–Egun *Adarretatik Zintzilik* komedia nostalgikoa taularatzen gabiltza, Galder Perezekin batera. komedia da, laugarren paretarik gabeko, komedia sentimentala eta kronika nostalgikoa.

Ziria noraino sartu diguten konturatzeko berrogei urte bete behar izan dute batzuek. Ibilbide polita izaten ari da antzezlana, udaberrian Igorre, Plentzia eta Lazkaon izango gara.

# El Tercer Hombre

## 23 de abril/ Día del Libro

Begoña Rodríguez Urriz

EL 23 de abril se celebra desde el año 1996, por iniciativa de la UNESCO, el Día Mundial del Libro, para conmemorar la muerte en 1616 de Cervantes, Shakespeare y de un tercer escritor, el Inca Garcilaso de la Vega, mucho menos conocido por el público. La coincidencia de su muerte con la de dos grandes figuras de la literatura universal ha relegado su recuerdo a segundo plano, le ha convertido en "el tercer hombre". Y, además, ha quedado eclipsado por otro poeta de su mismo nombre, Garcilaso de la Vega, el principal introductor del Renacimiento en España. ¡Pobre Inca Garcilaso! Ni nombre ni fecha en exclusiva, siempre acompañado por la sombra de otros. Y, sin embargo, le sobran méritos para destacar por sí mismo.

¿Quién era este personaje? En realidad se llamaba Gómez Suárez de Figueroa aunque es conocido universalmente como el Inca Garcilaso de la Vega. Nació en Cuzco el 12 de abril de 1539, hijo del conquistador extremeño Garcilaso de la Vega y de la princesa inca Chimpu Ocllo, sobrina del emperador del Tahuantinsuyo. A la muerte de su padre en 1559, viene a España para cumplir sus últimos deseos. En 1561 se instala en Montilla (Córdoba) en casa de su tío el capitán don Alonso de Vargas que le introduce en los círculos intelectuales de la ciudad. En 1509 participa, bajo el mando de Juan de Austria, en la campaña de las Alpujarras, alcanzando el grado de capitán. También él podría, para referirse a esa época, decir como su homónimo que la vivió "abrazando ora la espada, ora la pluma".

En 1586 termina la traducción del italiano de los *Diálogos de Amor* (Madrid, 1590) de León Hebreo; en 1605 publica en Lisboa *La Florida del Inca* que, en palabras de Vargas Llosa "basta para hacer de él uno de los mejores prosistas del Siglo de Oro"; en 1609 (también en Lisboa) la *Primera Parte de los Comentarios Reales*, en la que muestra la vida, costumbres y cultura de los incas, antes de la dominación española. En 1617 aparece su obra póstuma *Historia General del Perú*, en Córdoba, ciudad donde residió sus últimos años, murió y en cuya Catedral descansan sus restos (y desde 1978, también en su Cuzco natal).

Inca Garcilaso de la Vega: en la visita a su Casa Museo, situada desde el año 2013 en la casa solariega que habitó en Montilla (hasta su marcha a Córdoba) apreciamos que su vida, su nombre y sus obras sirvieron de nexo de unión entre dos pueblos, razas y culturas.